

CEPA GALDAKAO HHI. HEZKUNTZA, GIZARTE ERALDAKETARAKO TRESNA

CEPA GALDAKAO HHI-n irakurtzen eta idazten ikasi duten eta ikasten ari diren bertako emakumeei eta etorkinei omenaldia egin nahi diegu; oinarritzko heziketaren titulua lortu duten, beste maila akademiko batzuetan ikasketak jarraitu dituzten —unibertsitatera iritsi arte— eta, horri esker, lan-munduan sartzea lortu duten emakumeei. Emakume horiek beren autoestimua hobetu dute, harreman berriak sortu dituzte, gizarte zibilaren parte izateko gaitasunak bereganatu dituzte eta bizitzeko ilusioa berreskuratu dute. Ikasten ari direnak eta ikasten laguntzen dutenak gogora ekarri nahi ditugu.

Asko dira CEPA Galdakao HHI-n norabide pertsonal, familiar, kultural eta sozial berriak aurkitu dituzten emakumeak: elkarte kultural, sozial edo auzokoetan, parroketan, GKEetan, sindikatuetan dauden emakumeak; antzerki taldeak sortu dituzten emakumeak; foro eta kongresuetan parte hartzen dutenak; aldaketa globalari laguntzeko duintasunaren eta tokiko gizarte-aldaketaren alde borrokatzen diren emakumeak.

«CEPAko emakume parte-hartzaileek amesten eta ilusioz lanean jarraituko dute, jarraituko dugu, amets batzuek errealitatea alda dezaketela sinesten baitugu».

1985eko urrian, Galdakaoko herritarren eskaera eta aldarrikapenari erantzunez, ireki zen Helduen Hezkuntzako Zentroa (CEPA-HHI). Urte hauetan zehar, pertsona askok —gehienak emakumeak— parte hartu dute hezkuntza komunitate honetan, hezkuntza integratzaile, inklusibo eta solidario baten aldeko apustua eginez, horrela udalerriko gizarte eta kultura eraldaketan lagunduz.

BA AL ZENEKIEN...

1993an, EPA Galdakao HHIn Eskola Graduatua lortu zuten emakume talde batek **Erabide Emakumeen Elkarte Kulturala** sortu zuen, udalerrian emakumeentzako topaguneak eta jarduera kulturalak egiteko helburuarekin.

NIRE (mikro)IPUINA

Ahaldunduak

*EPAko emakume gazteak, irakasleak bultzatuta, gizarte matxistak itotzen eta etxeko lanetara eta seme-alaben zaintzara mugatzen dituen egoerari aurre egiteko elkartu ziren. Egoera horretaz nekatuta, matxinatu egin ziren, eta **ERABIDE emakumeen elkarte**a sortu zen. Hogeita hamar urte geroago, hirurehun bazkide ahaldun baino gehiago ditu, emakumeen eskubideen alde borrokan jarraitzeko prest.*

Pilar Monreal Galarreta